

Lili eta Saizarbitoria: izanak izena

Alex Gurrutxaga

Ezin dugu inor engainatu: izen handiekin, berdin kirolari zein artista, listoia igo egiten dugu. Gehiago eskatzen diegu besteekin baino, eta azkar, azkarregi hasten gara egindakoaren errelebantzia historikoa zein izan daitekeen pentsatzen –*Martutene* erraldioiak, eta ez naiz fisikoki ari, eragin zituen aieruak dira horren lekuko-. Eta, horrela, *Lili eta biok* kalean dela, ez da harritzekoa inork konparaziora jotzea. Baina arteak ez dituz mugak ez sailkapenak maite.

Ramon Saizarbitoriaren azken eleberririk kontatzen duen istorioa ikaragarria da –aberatsa, eta gogorra ere bai-. Bi ildo batzen ditu: Faustino Iturbe protagonistari gertatzen zaizkion gauzeta batetik, eta bestetik Iturbe bera, idazlea izaki, idazten ari den eleberriarrena. Maisuek dakiten eran

uztartzten ditu egileak ildo biak. Labur esateko, Faustinoaren bizitzaren parte existenziaren eta maitasun harremanen ingurukoa da batez ere: eremu horretan presentzia daukatenak dira, besteak beste, bere bakardadea eta gaixotasuna. Ana adiskidea eta Lili neska koskorra. Idazten ari den eleberria, berriz, Gerra Zibilaren garaian Otzetan gertatutako istorio zirrargarri eta latza da.



'Lili eta biok'

Idazlea: Ramon Saizarbitoria.
Argitaletxea: Erein.

Haurra amarena egiten

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Etxeko intimitateko albiste baten kronika, haur baten ahotik jasoa. Tapa biguneko liburuxka mehea da. Ezkerreko orrialdean testua: hiruzpalau lerro, tamaina handiko letra xehean. Lehen pertsona hitz egiten zaigu, ahalegin berezia eginez azaltzeko guri, irakurleoi, Ros nor den, eta Ros zaintzen nola aritzen den.

Azalpenak eguneroko jardunarekin lotuta daude, narratzaile-protagonista amaordearena egiten nola aritzen den, zer esaten dion bere kumetxoari, hark nolako beldurrak eta bihurrikeiak egiten dizkion... Dena giro xamurrean, haur baten begiradatik sortutako amagintza sentibera erakitzeko. Haurrekin erabiltzen den hizkera da nagusi, onomatopeiak, hitz bereziak...

Ilustrazioek eskuineko orrialdeak betetzen dituzte, eta noiz edo noiz, kanta-poematox bat ere txertatu da irudien gainean. Liburuko azalean agertzen dena bezalakoak dira barruko ilustrazioak. Haurraren bisaia portzelanazko panpinen eredura agertzen da, eta astoa egiantzekoa da, nahiz eta egiantzekotasuna apurtu egiten den haurra astakume gainean agertzen denean. Testu eta irudien artean sormen lan borobila erdietsi da, halako tonu eta gaia bilatzen duenarentzat, noski.



'Ros'

Idazlea: Miren Agur Meabe.
Ilustratzailea: Estibalitz Jalón.
Argitaletxea: Erein.

Eleberriarren hasieran elementu txikiak dira bi lerroen arteko lotura egiten dutenak: adibidez, idazlea Ondarretan dagoela, txakurrak edo kartzela zenaren hariak gertatzen zaizkio Faustino ildoak lotzeko aitzakia («*corp conducteur*»). Aurrera egin ahalari bien joserak oihal trinko osatzen du.

Batasun orokorrari idazleak detaileak zaintzeko daukan abilezia gehitzen zaio. Ez zait gehiegikeria iruditzen esatea eleberrigile errealista handien pareko ahala agertzen dela hor: hain da sendoa sarea, hain tupitua eta solidoa, ezen une batetik aurrera istorioa begien bistan eduki dezakezun. Aberastasun aparta dago hor, irakurketa etengabe haztera eramaten duena.

Idazleak irakurleak espero ditzakeen aukeren horizontetarekin jolasten du. Informazioa dosifikatuz, horizonte hori etengabe aldatzen da, irakurleak dakiela uste duena kolokan jarri eta trama koska bat gehiago bihurrituz aldiro; eta, horrela, amaieraraino. Egia da, bestalde, pixka bat sinesgaitza ere badela protagonistari gertatzen zaion kointzidentzia mordo.

Tramaren ildo nagusi biei lotuta, eleberririk historikoaren eta psikologikoaren ezaugarriak ditu *Lili*-k. Horrez gain, Saizarbitoriaren obra ezagutzen duenari ezaugarri egingo zaizkion osagai asko dauzka, hala tematikoak –Gerra Zibila, memoria historikoa, errua, sexua, etab.– nola formalak –kutsu zinematografikoa, karga psikologikoa, patetismoari loturiko umorea, etab.–.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi estiloa dotorea bai, baina irakurlearentzat zaila ere badela: batetik, protagonistak –oso neurotikoa– askoz denbora gehiago pasatzen duelako pentsaketan, ezer egiten baino; eta, bestetik, narratzaileak detailismoa ikaragarri jorritzen duelako edozein gai. Ondorioz, tenpoa asko mantsotzen da. Gehitu horri esaldien luze eta konplexua.

Ez gaitezen inor engainatzen saiatu: Ramon Saizarbitoria ezin dugu irakurri Ramon Saizarbitoria ez balitz bezala; izena hor dago. Baina egileak, beste behin, egozten diogun mailako lana argitaratu du: eleberririk oso ona da *Lili eta biok*. Esaten dutena esaten dutela, izanak egiten du ize-
na.



'Euskal literaturaren antologia 1: Erdi Arotik Errenazimentura'

Egilea: Euskaltzaindiako Literatura Ikerketa Batzordea. **Argitaratzailea:** Euskaltzaindia.

Euskal literaturan funtsezko diren testuak biltzeaz gain, haien autoreei eta garaiari buruzko azalpenak ere badakartzan antologiak. Erdi Aroko bertso zaharrek hasi, eta Joanes Leizarragaren testuetara arte doa liburua.



'Santa Teresa Jesusena, idazlan guztiak'

Egilea: Teresa de Cepeda y Ahumada. **Itzultzailea:** Luis Baraiazarra. **Argitaratzailea:** Karmel.

Santa Teresa Jesusenaren jaiorenrenaren harira, haren obra guttia euskaratu du Luis Baraiazarra karmeldar eta ohorezko euskaltzainak. 2.000 orriko liburuan datoz literatura mistikoaren ikur izandakoaren lan denak.



'Tapper bikiak gerran'

Egilea: Geoff Rodkey. **Itzultzailea:** Danele Sarriugate. **Argitaletxea:** Elkar.

Umorea da nagusia Claudia eta Reese neba-arreba bikien abenturak kontatzen dituen liburua. New Yorkeko bi gazte-txoek elkarri egindako gerra deklarazioa kontatzen du istorioak, eta 10 eta 12 urte arteko adin arteko irakurleentzako dela dio argitaratzaileak.

Sentipen gazi-goza

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Jakintza liburu sorta argitaratu berri honek antzina lau herri esanguratsuren erretratu eskaintzen digu, beste hainbeste liburukitan: Egiptoarrak, Zeltak, Greziarrak, eta Erromatarrak.

Errentagarriak izateko sortutako ekoizkinek dituzten bertute eta hutsuneak erakusten dituzte. Diseinuak eta irudien tratuak eraginkor bezain egokiak dirudite: garai hartako objektu eta artelanen argazkiak txandakatuta agertzen dira, marrazketa deskriptibo eraginkor eta umoretsuarekin konbinaturik.

Informazioa hamasei ataletan banatuta daukate. Guztietan erakusten zaizkigu bai herritarren eguneroko bizitza, bai eraikuntzak, bai eta jainko-jainkosen azalpenak ere. Informazioaren es-

tandarizazio honek azalpenetan hutsuneak ematera erorarazten ditu, esaterako egiptoarren baltsamazio teknikari dagokionez. Baina akatsik mingarriena liburuen lehen orrialdeko lehen esaldietan dago, sistematikoki gaizki adierazita baitaude kronologikak: «Duela mila (sic) urte baino gehiago bizi izan ziren lehenbiziko erromatarrek Erroma hirian». Nire iritziz euskal argitaratzaileak erraz zuzenduko lieke halako zabarkeria, testuak gainbegiratuko balitu.



'Erromatarrak'

Idazlea: Katie Daynes. **Ilustratzailea:** Adam Larkum. **Itzultzailea:** Anton Garikano. **Argitaletxea:** Ttartalo.